



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2023/05/23an EGINDAKO OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 23/05/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko maiatzaren 23an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Nestor Arana eta Leire San Vicente.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 23 de mayo de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Nestor Arana y Leire San Vicente.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAADC3TH.lbYE>

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2023/04/25 (ohiko bilkura eta ezohiko bilkura) eta 2023-05-11.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2023ko maiatzaren 16ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berriaz eman da 7. kreditu aldaketa espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

3.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2023ko lehenengo hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 9 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

4.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN N°3/2023 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren 2023-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea 2. LERRO ESTRATEGIKOKO (Kirol sustapena) dirulaguntza programaren eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko edo aldatzeko.

Proposamenak ikusita eta Kultura eta Kirolak batzorde informatzaileak egindako diktamenarekin bat etorri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Lehenengoa.- 2. lerro estrategikoan -KIROL SUSTAPENA- ondorengo dirulaguntza programa sartzea:

G) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LAGUNTZA IZENDUNA ATAMA KENPO TALDEARI PORTUGALEN JOKATUKO DEN KENPO MUNDUKO TXAPELKETARA JOATEKO

HARTZAILEAK: KARATE ATAMA ELKARTEA

HELBURUA: Karate Atama elkarteko lau kide Portugalen jokatu den Kenpo munduko txapelketara joateko kostua finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Gure herrialdean praktikatzen den kirola sustatzea, nazioarteko txapelketetara joatea erraztea, eta, horrela, gazteentzat eredu izatea.

DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna hitzarmenarekin.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 1.500 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.71.01 2023

5.- ESKORIATZAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO IDATZIA EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN (EHPM-MPEH) IZENEAN.

- Hitza emanda, Eluska Irazuk honakoa esan du: *dakizuenez, Euskal Herriko erretiratuen eta pentsiodunen mugimenduko kideak martxa bat egiten ari dira. Astelehenean hasi ziren, batzuk Bilbotik eta besteak Bergaratik. Ibilaldiaren izena: «1.080 euro ibilaldia». Helburua da maiatzaren 25ean Gazteizen manifestazio handi batekin amaitzea. Eskatu ziguten ea sarrera eman geniezaiokeen aurkeztutako idazkiari, eta hurrengo osoko bilkuran aurkeztu. Horrekin batera, mugimenduari gure babesa adierazteko eta mugimenduarekin bat egiteko eskatu dute. EH BILDUK babesa eman die eta bat egin du martxarekin. Idazkian agertzen diren beste aldarrikapen batzuk badituzte ere, euren aldarrikapen nagusia 1.080 euro dira. Orain idatzia irakurriko dut: (hitzez hitz transkribatzen da).*

“Idazki honekin, EHPM-MPEH Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak atseginez jakinarazten dizuegu maiatzaren 22an martxa bat hasiko dugula Bilbotik eta Bergaratik abiatuta, eta hilaren 25ean Gasteizen manifestazio batekin amaituko dela.

Martxa hori dela eta, zuek hautetsi zareten udalerraren zati bat oinez zeharkatzeko asmoa dugu, eta eskatzen dizuegu beharrezko babesa eman diezaguzuela martxa ondo joan dadin eta, egoki baderitzozue, martxa honetan gure funtsezko aldarrikapena ere babes dezazuen.

Mobilizazio honen bidez, estatuko gobernuari eskatzen diogu 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzea, eta EAEko eta Nafarroako gobernuai gutxieneko pentsioa 1080 eurora arte osatzea, hamalau ordainsaritan.

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Erabaki hori hartzea EAEko eta Nafarroako gobernuen eta parlamentuen borondate politikoaren menpe dagoela uste dugu, eta ez dago hori eragozten duen arrazoi politiko edo ekonomikorik.

Premiazko eta justiziako aldarrikapena da, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, beren lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponenzialaren testuinguruan, gero eta adineko eta pentsiodun gehiagok beren beharretara egokitutako etxebizitza osasungarri bat, elikadura osasuntsu bat, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzeko aukerak eten egiten dituzte, mendetasunari arreta emateko dituzten premiak arintzeko. Gaur egun 167.718 pentsiodunek EAEn eta 51.306 pentsiodunek 1080 eurotik beherako pentsioak dituzte Nafarroan, gehienak emakumeak.

Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero-arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.

Kalitatezko enplegua, soldata hobeak eta arrakala ezabatzea, gainera, pentsioen etorkizuna bermatzeko eskubidea dira, ekarriko lituzketen diru-sarrera gehigarriengatik.

Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen dugu: EAEn zein Nafarroan gutxieneko pentsioa 1080 eurotan osatzea.

Parte hartzen duzuen udalari eskatzen diogu ibilbidea egiteko behar den azpiegitura eman diezaguzula, eta babes eta elkartasun gisa, adierazitako egunean balkoian gutxieneko 1080 euroko pentsio-mezua jartzea.

Emandako arreta alde aurretik eskertzen dugu eta horretarako harremanetan jarriko gara”.

- *Idazkia irakurri ondoren, honakoa esan du: atzo hemendik igaro ziren, hemen igaro dute gaua eta, gosalduta ondoren, Gasteizerako martxa jarraitu dute. Eta esandakoa, guk bat egiten dugu martxarekin, aldarrikapenekin eta gure babes osoa eskaintzen diegu.*
- *Josu Ezkurdia: gure aldetik bi kontu. Bata, eta ezin bestela izan, guk pentsio duin bat eskatzea babesten dugu, eta batez ere, esan den bezala, emakume alargunentzat. Hori esanda, eta behar horrekin ados gauden arren, uste dugu akats bat dagoela, Eusko Jaurjaritzari eta Nafarroako Gobernuari pentsio txiki edo ez nahikoak konpentsatzeko eskatzen ari baitzaie. Denok dakigunez, Autonomia Estatuaren arabera, gure erkidegoaren eskumenetako bat pentsioak dira, baina Espainiako Estatuak ez du hori betetzen, eta eskumena Espainiako gobernuaren esku dago oraindik. Halaber, Estatutua betetzen ez dela salatzen aprobetxatu nahi genuke, eta pentsiodun horiei gutzietan esango nieke gure gobernuari eskatu beharrean PSOEn eta PODEMOSen gobernu espainiarrari zuzentzeko. PSOEn eta PODEMOSen gobernu aurrerakoi horri eskatzeko, bere erantzukizuna delako eta pentsiodun guztiei pentsio duinak eskaini behar dizkielako. Horregatik ez dugu idazkiaren bigarren zatia babesten, hau da, pentsio duinen beharra babesten dugu, baina uste dugu PSOEn eta PODEMOSen gobernu horri eskatu behar zaiola. Hori esanda, atzo iritsi zen martxa hona eta ez zuten arazorik izan plazan elkarretaratzea egiteko eta gaua frontoian pasatzeko. Zentzu*

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

horretan ez dago arazorik, gu adierazpen askatasunaren alde gaude. Gure aldetik ez dago besterik, eta horregatik ezin diogu gure babesa eman dokumentu horri.

Alkatea: nire aldetik, puntualizazio txiki bat. Antolakuntzari dagokionez, justu samar ibili dira, abisu guztiak azken ordukoak izan baitira. Dokumentuan ez da agertzen ze ibilbide egingo duten, noiz iritsiko ziren hona..., hori alde batetik. Hala ere, haiek eskatzen dutena da gure herritik pasatzen uztea, eta hori eskaini zaie. Afariaz arduratu den Olazar jubilatuen elkartearekin harremanetan zeuden, eta Udalari eskatu dioten gauza bakarra lo egiteko leku bat da. Horretarako frontoia egokitu zaie eta kiroldegian dutxatzeko aukera izan dute. Ez dugu kezarik jaso, eta uste dut eskatzen zuten guztia bermatu zaiela. Besterik gabe, Udalak eskatu zaizkion eta bere esku zituen baliabideak jarri dizkie. Egia esan, eta orain nire galdera doa, ez nuen argi planteatzen duzuen mozio bat den, eskaera bat... Edumerekin gai-zerrenda prestatzerakoan zailtasunak izan baititugu gai honi zer planteamendu eman jakiteko. Nik ulertzen nuen idatzian eskatzen zutena Eskoriatzatik igarotzea bermatzea zela, eta hori egina dago. Orain, ez dakit beste zerbait egin behar den.

- *Eluska Irazu: ez dute gaia mozio gisa planteatzen, niri behintzat ez didate hori aditzera eman. Horiek igarotzen diren udalerrietako udalek beren aldarrikapenekin bat egitea eskatzen dute. Josuk esan du alde bat babesten dutela, eta bestea, ez. Nik uste dut hori dela guztia, ez dutela besterik eskatzen, bestela harremanetan jarriko dira.*

Eluska Irazuk aurrekoa argituta, eztabaida amaitzeko, udal talde bakoitzak idazkian egiten diren aldarrikapenen aurrean duen jarrera adierazten du:

EH BILDU- Bere babesa adierazten du eta eskaerekin bat egiten du.

EAJ/PNV- Pentsio duinen beharra babesten du, baina ez du babesten aldarrikapena Eusko Jaurilaritzari eta Nafarroako Gobernuari zuzentzea, lehen azaldutako arrazoiengatik.

6.- GALDE-ESKEAK.

- *Josu Ezkurdia: agintaldi honetako azken ohiko osoko bilkura denez, EAJ/PNVren udal-taldeko bozeramaile gisa, eskerrak eman nahi dizkiot Joserrari (alkateari) egin duen lan guztiarengatik eta jasan behar izan dituen “buruko minengatik”; guk, logikoa denez, beste 4 urtez jarraituko duela espero dugu, baina hala ere, publikoki eskertu nahi nion nire taldearen izenean. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet nire taldeko kideei eta oposizioan egon zaretenei ere, egon zaretenean. Badakit askotan ez garela ados egon, eta pena da, uste dugulako Udala eta herria denon artean eraiki behar direla, baina, hala ere, eskerrik asko hortik pasatu zaretenoi edo egon zaretenoi.*
- *Eluska Irazu: azkenekoan ere zirikada bota behar izan duzu.*
- *Alkatea: egia esatera, hitza kendu didazu (Josuri zuzendu zaio). Nik, alkate naizen aldetik, eskerrak eman behar dizkiet hiru udal-taldeei, nahiz eta bat ez egon gaur bertan. Lehenik, izan duzuen dedikazioagatik, egindako ekarpen guztiagatik. Agintaldi honetako azken osoko bilkura da, eta, alkate naizen aldetik, guztiok egin duzuen lana eskertu behar dut, handia, txikia edo dena delakoa izan. Eta hain gogorra izan den*

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

legealdi honetan, niretzat ohorea izan da aurrera atera ahal izatea. Eta esateko geratzen zaidan gauza bakarra bertan dauden bi taldeentzat da: zorte ona izan dezazuela igande honetan, eta ez ahaztu azken "lantxo" ekainaren 14an dugula, eta, gero, ekainaren 17an, udalbatza berria eratu beharko dela. Beraz, eskerrik asko eta bertsolariek esan ohi duten bezala: "Ondo egindakoak txalotu eta gaizki egindakoak barkatu".

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:20an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fecha 25/04/2023 (sesión ordinaria y extraordinaria) y de la celebrada en fecha 11/05/2023 .

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 16 de mayo de 2023.

De forma expresa se da cuenta de la resolución por la que se aprueba el expediente de modificación de créditos N° 7

3.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO (art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el primer trimestre de 2023.

El Pleno, con la asistencia de 9 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

4.- MODIFICACIÓN N°3/2023 DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES.

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2019, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

Aprobado, desde el área de Cultura se ha visto la conveniencia de modificar las previsiones contempladas en su Anexo-2023, con el fin de ampliar o modificar el ámbito subjetivo y objetivo de la LINEA ESTRATEGICA 2- Promoción del Deporte

Vista las propuesta y de conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Cultura y Deportes, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Primero: Introducir en la línea estratégica 2 – PROMOCIÓN DEL DEPORTE, el siguiente programa de subvención:

G) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: AYUDA NOMINATIVA A ATAMA KENPO TALDEA PARA ASISTIR AL MUNDIAL DE KENPO DE PORTUGAL

- DESTINATARIOS: ASOCIACIÓN KARATE ATAMA
- OBJETO: Ayudar a financiar la asistencia de cuatro miembros de la asociación Karate Atama a la mundial de Kenpo que se celebra en Portugal
- EFECTOS PRETENDIDOS : Fomentar el deporte que se practica en nuestro país, facilitar la asistencia a los campeonatos internacionales y, de esta manera, que sirvan de ejemplo para los jóvenes.
- MODALIDAD DE LA CONCESIÓN: nominativa con convenio
- COSTES PREVISTOS: 1500 euros.
- FINANCIACIÓN: 0400.481.341.71.01 2023

5.- ESCRITO PRESENTADO POR EH BILDU ESKORIATZA EN REPRESENTACION DEL MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE EUSKAL HERIA (EHPM-MPEH)

- Concedida la palabra, interviene Eluska Irauzu: *Como sabéis, los miembros del movimiento de retirados y pensionistas de Euskal Herria están haciendo una marcha. Empezaron el lunes, unos desde Bilbao y otros desde Bergara. La denominación de la marcha es “ 1080 euro ibilaldia”. El objetivo es finalizar el 25 de mayo en Gazteiz con una gran manifestación. Nos pidieron a ver si podríamos dar entrada al escrito que presentamos, y presentarlo en el próximo pleno. Con ello piden también que expresemos nuestro apoyo al movimiento y nos unamos al mismo. EHBILDU ya les ha mostrado su apoyo y se ha unido a su marcha. Si bien tienen otras reivindicaciones que aparecen en el escrito, su reivindicación principal son los 1080 euros. Ahora pasaré a leer el escrito: (se transcribe literalmente el mismo)*

“Con el presente escrito el Movimientos de Pensionistas de Euskal Herria EHPM-MPEH nos complace informarles que el día 22 de Mayo iniciamos una marcha que saliendo de Bilbao y Bergara concluirá el día 25 en Gasteiz con una manifestación.

Con motivo de dicha marcha tenemos previsto recorrer andando parte del municipio del que ustedes son cargos electos y les pedimos nos presten el apoyo necesario para que la marcha discurra bien y si lo consideran adecuado apoyen también nuestra reivindicación fundamental en esta marcha.

Con esta movilización demandamos al gobierno del estado establecer para el año 2023 la Pensión Mínima en 1080 euros y a los gobiernos de la CAV y Navarra complementar la pensión mínima hasta 1080 euros en catorce pagas.

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Consideramos que tomar esta decisión solo depende de la voluntad política de los gobiernos y parlamentos de la CAV y Navarra y no hay razones políticas ni económicas que lo impidan.

Es una reivindicación urgente y de justicia porque las instituciones públicas tienen la obligación de adoptar las decisiones precisas para garantizar a la ciudadanía unas condiciones de vida dignas; condiciones que en el caso de las personas mayores y pensionistas que no disponen de ingresos procedentes de su trabajo pasan por garantizar unos ingresos mínimos suficientes.

En el actual contexto de crecimiento exponencial del coste de la vida cada vez mayor número de personas mayores y pensionistas ven truncadas sus posibilidades de acceder a una vivienda saludable y adecuada a sus necesidades, una alimentación sana, garantizar su salud y la atención efectiva para paliar sus necesidades de atención a la dependencia et. Hoy 167.718 personas pensionistas en la CAV y 51.306 personas pensionistas en Navarra tienen pensiones por debajo de los 1080 euros, la inmensa mayoría mujeres.

La pensión mínima en todas sus variables tiene nombre de mujer. Es algo que se constata en la brecha de género que tiene como antecedente la desigualdad de salarios y la asignación unilateral de las mujeres al trabajo no remunerado o mal pagado en el ámbito de la reproducción y los cuidados.

Empleo de calidad, mejores salarios y la eliminación de la brecha son además de un derecho la garantía del futuro de las pensiones por los ingresos adicionales que supondrían.

*Por todo ello demandamos: **Complementar tanto en la CAV como en Navarra a 1080 euros la pensión mínima ¡ya!***

Solicitamos del ayuntamiento del que ustedes forman parte nos facilite la infraestructura necesaria para realizar el recorrido y como muestra de apoyo y solidaridad colocar en la balconada del mismo el día indicado el mensaje de pensión mínima de 1080 euros.

Agradecemos por anticipado la atención prestada y nos pondremos en contacto para ello.”

- *Tras finalizar la lectura, añade: Ayer pasaron por aquí, han pasado aquí la noche y tras desayunar han seguido la marcha hacia Gasteiz. Y lo dicho, nosotros nos unimos a la marcha, a las reivindicaciones y les ofrecemos todo nuestro apoyo.*
- *Josu Ezkurdia: Por nuestra parte dos cuestiones. Una, y como no puede ser de otra forma, nosotros apoyamos la solicitud de una pensión digna, y sobre todo, como se ha dicho, para las mujeres viudas. Dicho eso, y a pesar de que estamos de acuerdo con esa necesidad, creemos que hay un error, porque se está pidiendo al Gobierno Vasco y al Gobierno de Navarra compensar esas pensiones pequeñas o no suficientes. Como todos sabemos, en virtud del Estatuto de Autonomía una de las competencias de nuestra comunidad es la de las pensiones, pero es algo que el Estado Español no cumple y la competencia sigue en manos del gobierno español. Quisiéramos también aprovechar para denunciar ese incumplimiento del Estatuto, y les diría a todos esos pensionistas que en lugar de pedir a nuestro gobierno se dirigieran al gobierno español del PSOE y PODEMOS. Que sea a ese gobierno progresista de PSOE y PODEMOS a quienes se le pida porque es su responsabilidad y deber ofrecer una pensiones dignas a todos los pensionistas. Por eso no apoyamos la segunda parte del escrito, esto es, apoyamos la necesidad de unas pensiones dignas pero pensamos que es al*

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

mencionado gobierno de PSOE y PODEMOS a quienes hay que pedirles. Dicho eso, ayer llegó la marcha aquí y no tuvieron ningún problema para concentrarse en la plaza y pasar la noche en el frontón, En ese sentido no hay ningún problema, nosotros estamos a favor de la libre expresión. Por nuestra parte no hay más y es por lo dicho por lo que no podemos dar nuestro apoyo a ese documento.

- *El Alcalde: Por mi parte , una pequeña puntualización. En cuanto a organización han andado un poco justos, porque todos los avisos han sido de última hora. En el documento no aparece el recorrido que van a hacer, cuándo iban a llegar aquí,... Eso por un lado. No obstante, ellos lo que piden es que se les facilite el paso por nuestro municipio y eso ya se les ha ofrecido. Estaban en contacto con la asociación de jubilados Olazar, que se ha encargado de la cena,.. y lo único que han pedido al Ayuntamiento es un lugar para dormir. Se les ha acondicionado para ello el frontón y han podido ducharse en el polideportivo. No hemos recibido queja alguna, por lo que presumo que se les ha garantizado todo lo que pedían. Sin más, el ayuntamiento les ha puesto los recursos que pedían y tenía en sus manos. La verdad es que, y ahora va mi pregunta, no tenía claro si lo que planteáis es una moción, una solicitud, porque a la hora de preparar el orden del día con Edurne hemos tenido dificultades para saber qué planteamiento dar a este asunto. Yo entendía que en el escrito lo que se pedía era garantizarles su paso por Eskoriatza, y eso ya se ha hecho. Ahora, no sé si hay que hacer algo más.*
- *Eluska Irauzu: Ellos no plantean el asunto como moción, al menos a mí no me han dado a entender eso. Lo que piden es que los ayuntamientos de los municipios por donde pasan se unan a sus reivindicaciones. Josu ya ha dicho que apoyan una parte, no la otra. Yo creo que con esto es todo, que no piden nada más, si no, ya se pondrán en contacto.*

Aclarado lo anterior por parte de Eluska Irauzu, el debate termina expresando cada uno de los dos grupos municipales su postura ante las reivindicaciones que se hacen en el escrito:

EH BILDU- Muestra su apoyo y se une a las mismas.

EAJ/PNV- Muestra su apoyo a la necesidad de unas pensiones dignas pero no apoya el hecho de que la reivindicación sea dirigida al Gobierno Vasco y al Gobierno de Navarra por las razones expuestas en su intervención anterior.

6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

- *Josu Ezkurdia: Como es el último pleno ordinario de esta legislatura, como portavoz del grupo municipal de EAJ/PNV quisiera agradecer a Joserra (el alcalde) por todo el trabajo que ha hecho y por los “dolores de cabeza” que ha tenido que soportar; nosotros, como es lógico, esperamos que seguirá otros 4 años, pero aún y todo quería agradecerle públicamente en nombre de mi grupo. También quisiera agradecer a los miembros de mi grupo y también a los que habéis estado en la oposición, cuando habéis estado. Se que muchas veces no hemos estado de acuerdo, y es una pena porque pensamos que el Ayuntamiento y el pueblo hay que construirlo entre todos, pero aún y todo, gracias a los que habéis pasado o estado por ahí.*
- *Eluska Irauzu: También en el último has tenido que soltar la pulla.*

2023/05/23
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

- El Alcalde: A decir la verdad, me has quitado la palabra (se dirige a Josu). Yo como Alcalde he de agradecer a los tres grupos municipales, aunque uno no está presente. Primero, por la dedicación que habéis tenido, por todo lo que habéis aportado. Es el último pleno de esta legislatura, y, como Alcalde, he de agradecer el trabajo que habéis hecho todos, sea mucho, o poco o el que sea. Y en esta legislatura que ha sido tan dura, para mí ha sido un honor el poder sacarla adelante. Y lo único que me queda por decir va dirigido a los dos grupos presentes, y es que tengáis suerte este domingo; y no olvidar que el último “trabajillo” lo tenemos el 14 de junio y luego el 17 de junio vendría la constitución de la nueva corporación. Entonces, muchas gracias y como suelen decir los bersolaris: “ondo eginakoak txalotu eta gaizki egindakoak barkatu”.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:20 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.